

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Epelean gozo

Estimatzen dut gure herria, nahiz ez zaidan iruditzen bereziki miragarria. Maitasunaren begi onaz begiratzuz gero, neurritsu eta zuhurra dela esango nuke; petralduta nagoenetan, epela eta txepela dela. Gauza bera ikusteko bi modu, azken batean.

Izaera moderatu horrek badu bere isla politikoa, bere emaitza elektoral, eta gehien-goaren sentipenarekin bat egiten jeltzaleek asmatu izan dute beste inork baino gehiago. Orain, baina, kontuak okertzen hasi zaizkio. Ez zeharo aldrebesteraino, baina bai apur bat zailtzeko. Horretan ere izan du zerikusia, besteak beste, ezker abertzalearen ilegali-zazioak. Pentsa, zenbat gustatu izan zaion Ibarretxeri, adibidez, bi muturren artean kokatzea: batzuek espainolista saldu bat naizela esaten didate; besteak, berriz, filoterorista erradikal bat naizela... eta bertutea erdialdean beti, nonbait. Orain, ordea, sektore horietako bat mapa politikotik desagerrarazita, zentraltasunaren diskurtsoa sozialistek eskuratu dute, eta ahal duten zuku guztia ateratzen diote: batzuek zentralismo uniformizatzaile itzuli nahi dute, besteak independentzi amets eroetan dabilta, geuk eskaintzen dizuegu erdibide zentzuzkoa...



DANI BLANCO

Ez da marketin hutsa: Zapaterok zioen bere alderdia zela Espainiako gizartearen antz handiena zeukana eta horregatik irabaziko zituela hauteskundeak, eta gurean ere Patxi Lopezena euskal gizartearen gero eta antzekoago ikusten dut nik: euskara maite bai, nahiz eta gutxi jakin eta gutxixeago egin; progresista baina abentura arriskutsuetatik urruti; modernoa baina espantatu handirik gabe; ekologista *ma non troppo*... Halakoxea dugu herria ere, ez gaitzen engaina, eta berdin alderdi gehienak, alde handirik gabe; irudi *soft, cool, light* hori transmititzen jakin behar, ordea, eta hor ez dute denek berdin asmatzen.

«
Berriki, gazte topaguneko bozeramaile bati irakurri nion independentzia eta sozialismozko burbuila batean biziko zirela beren jardunaldietan.

Burbuila... nahita ere ezingo nuke metafora hoberik sortu

»

Eta ezker abertzalea? Berriki, gazte topaguneko bozeramaile bati irakurri nion independentzia eta sozialismozko burbuila batean biziko zirela beren jardunaldietan. Burbuila... nahita ere ezingo nuke metafora hoberik sortu. Joko politikoan eragina izan nahi badu, bertakoak ere jabetuta daude pistolak isildu beharra dagoela, betiko. Burniak eskuetan dituztenek, ordea, uste dute nonbait ez duela merezi besteen jokoan sartzea, aurretik zelaia aldatu beharra dagoela, eta horretarako errezeta zaharrari eusten diote, minari sorigor eta gizarteari entzungor eginda. Noiz arte? Burbuila lehertu arte? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Harrigarria egin, banuen bere berri. Oier Mendizabal Huizi. Añorgako Matias lagunaren kuttunetako bat, Nastiren iloba, gure koadrilaren poza. Felix Soto entrenatzailea ekarri dit gogora, frankismoaren gorrian Egia eskubaloi taldeak Atletico de Madriden aurka galdutako finalaren ostean telebistaz etxeko presoen askatasuna eskatu zuena. Garaiko hedabideek ezin izan zuten ezkutatu eta zigortua izan zena. Sistiaga eta Aitor Agirre futbolariak ere gogoan ditut, Racing de Santanderreko jokalaria zirelarik eta telebistaz emandako partida batean, frankismoak hildako bost militanteen alde

Ez zait

elastiko zuriaren gainean besoko beltzez atera zirenak. Hogeita bi jokalariren artean, bakarrak. Eta Oierrek ere berea egin du izenak eta guzti garaipena preso lagunei eskaini dienean. Bost hedabide irakurri ditut, Hernaniko *Kronikan* bakarrik ikusi dut berria, niri partida osoko jokaldirik ederrena iruditu zaidana. Harro egon daitezke bere lagunak, garaipena eskainiz partidaren erdian "Euskal presoak etxera" oihuak isilarazi nahi izan zuten ikusleen txistuak mututu zituen Oierren pilotakada baitute euren aldeko maitasun adierazpenik ederrena. Txapela janzteko modukoa, akorduan betiko izanen dutena kartzelaldiaren eztiagarri. ■